

Esaten dena...



DIANA FRANCO EGUREN

Beharbada gizakion ahultasunetarikoa gehien-goari entzuteko eta kasu egiteko dugun joera da. Ziur gure espeziearen garapenaren ezaugarri garrantzitsua izan dela, eta beharrezkoa biziraupenerako. Baina digitalizazioarekin, dugun ezaugarri horrek zaurgarriagoak bilakatu gaitu.

Egun hauetan Errumaniako hauteskunderen emaitzak ezeztatu egin dira. Errusiari leporatu diote TikTok bitartez herri oso baten norabidea eragiteko gai izan dela, desinformazio kanpaina sustatuta plataforma horretan. Demokrazien boterea, plataformetan eragiteko boterea dutenen menpe jartzen dela.

Gizakiak hain bideragarri garen errealitate baten baitan bizitzeak bestelako hausnarketa batzuk dakartza: gehiengo jarraitzeko dugun berezko joera honetatik gure buru eta herriak babesteko zein neurri hartu beharko genituzke? Beharbada pentsamendu kritikoa hezte da bide onena, dugun errealitatea zelaz funtzionatzen duen ulertu eta eragiteko beharrezkoa baita. Baina, aldi berean, gure gizarte bilakaeratan hainbesteko eragina duten teknologiak etengabe berrikusteko grina barneratu beharko genuke gizakiok.

Errumaniarentzat suposatzen dut egoera hau oso etsigarria dela, euren subiranotasuna bi potentzia ezberdinen arteko gatazkaren erdian baitago. Bitartean, hirugarren batek, Txinako TikTok plataformak kasu honetan, boterearekin jolasteko aukerak sortzen jarraituko du, gehiago aberasteko eta indartzeko bidean. ●



Siriako gerra ez da amaitu

AXIER LOPEZ

Al-Assad familia agintean izan da 1971tik. Aurrena aita eta 2000tik aurrera Baxar semea izan dira presidente. Ordutik Ekialde Hurbilean ziklikoki errepikatzen diren askotariko egoera trumoiatsuak gainditu dituzte. 2011n sarraski odoltsu betean sartu zen herrialdea, eta orain egoera "egonkorragoa" zela -horrelakorik inoiz izan bada- irudikatzen zenean, gehien harridurarako, hamahiru eguneko oldarraldia nahikoa izan da Baxar Al-Assad boteretik erauzteko.

"Errebeldeek hartu dute boterea" adierazi dute NATOren interes geopolitikoekin lerrokaturiko Mendebaldeko hedabide handiek. "Errebelde" horien buru Hayat Tahrir al-Sham (HTS, Sortaldea Askatzeko Erakundea) muturreko talde armatu islamista sunita dago. Al-Qaeda Sirian zuen adar hori talde terroristatzat izendatu dute NBek, AEBek edota Europar Batasunak berak. Ondo armatutako taldea da, eta gerrarako puntako bitartekoen jabe izatea askorentzat Turkia zein Qatarren babesaren adierazle da. Haren buru Abu Mohamed al-Julani dago. Orain islamista moderatu gisa saldu du bere burua.

HTS ez da Assaden erorketan parte hartu duen eragile bakarra. Siria iparraldeko erasoaldian parte hartu du Siriako Armada Nazionalak (SNA, ingelesezko sigletan), turkmeniarrek osatua -Siriako etnietako bat, eta Damaskoko hegoalde-tik eraso joa duten taldeek ez dute loturarik HTS eta SNArekin. Haien arteko batasun bakarra Assad botatzea zen.

Ohi legez, erorketaren ostean inguru-ara begiratzea ariketa ona da interesak

argitzeko. Estatu sionista genozidak hobe-ekin egiten dakiena egin du Assaden erorketa izan bezain fite. Batetik, Israel-ek 100 leku inguru bonbardatu ditu Siria hegoaldean eta bestetik, aurretik inbaditua zuten Siriako Golango Gainetan lur gehi-ago okupatu dituzte, Iranek eta Hezbollahk euskarri handi bat galdu izana ospatze-arekin batera. Baina, orotan, garaile Turkia agertu da.

KURDUAK JOPUNTUAN

Kurduak aspalditik salatu dute SNAko kideak Turkiaren agindua betetzen ditzutela. Eta horrek gauza bat esan nahi du: euren helburu bakarra kurduen aurka egitea da, Turkiak Sirian dituen interesak, nagusiki, herri kurduari lotuta daudelako. Berbarako, Aleppo hiria kontrolpean hartu ostean, haiek Damaskorako bidea hartu beharrean, Afringo errefuxiatu kurduak zeuden eskualdera jo zuten, Shahbara. Egun ere bide horretan darraite. Eta aurretik, hamaika aldiz bonbardatu ditu Erdoganaren armadak Siriako ekialde eta iparraldean kurduen kontrolpeko lurak.

Assad desagertuta, kurduen proiektu politiko autonomoa kinka larrian dago Sirian. Turkiak adierazi du alde guztiekin negoziatuko duela, salbu, jakina, kurduekin, PKKrekin loturak izatea leporatuta. Edonola ere, emakumeak lehen lerrera eraman dituen proiektu politikoak talka betean da indar jihadistek eraiki nahi duten Siria islamista berriarekin. Gerraren fase bat amaitu da batzuentzat, baina beste batzuentzat aldiz berri bat hasi da. ●